



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/04/02)	Herri Batzarra	Datorren larunbaterako deialdia definitu eta jakinarazpena inprimatu da.	
	Ikastaro eta formazio saioak	Ekainera bitartean aurreikusten diren ikastaro eta formazio saioak zehazten ahalegindu gara: - <u>Batukada</u> : 10 laguneko taldeak eman du izena. Izena eman dutenekin eta Hariztizabalgo Enekorekin elkartuko gara Aste Santu ondorenean hasi ahal izateko. - <u>Nutrizioa</u> : Proposatutako data maiatzaren 2a izan bada ere, ez dugu oraindik erantzunik jaso - <u>Energia</u> : "Birgaitze energetikoa" tailerraren data maiatzaren 13a izango da - <u>Sukaldaritza</u> : Manurekin egingo diren ikastaroak hiru epetan emango dira, hiru gairen inguruan: "Sukaldean soberan geratzen denarekin zer?", "Kreatibitatea sukaldean" eta "Garai bateko sukaldaritza berreskuratu". Bakoitzaren iraupena hilabetekoa izango da eta ordubete-ordu t'erdiko saioa bakoitza.	- Instrumentuak eskuratzeko bidea jorratu eta hasiera data finkatu - Data finkatu ondoren, jakinarazpena zabaldu - Jakinarazpena zabaldu - Manurekin adostu zein hilabete ikusten dituen egokien eta zein ordutegiarekin
	Korrika	Kilometroa erosita dago. Lekukoa eramango duten herritarrak zein izan daitezkeen aipatzean, euskara ikasten ari diren herritarrak izan daitezkeela aipatzen da.	Petoak eskuratu eta Itsasori dagokion km tramoak identifikatu
	Herri Ostatuari buruzko ikastaroa Orexan	Gorka eta Manu izan dira eta bertan izandakoaren berri jaso dugu: herri proiektu honekin daramaten denbora, nola kudeatzen ari diren, zein helbururekin, herrian eta inguruan izaten ari den proiektzioa, dituzten baliabideak, etab.	Herri proiektu berritzaile honen inguruko hausnarketa egin
	Auzolana	Ditugun zereginetarako taldeak antolatu dira eta beharrezkoa den materiala non dagoen aipatu, erosi beharrezkoa zehaztu eta ardurak banatu dira. Aldez aurretik egin beharrezkoak burutzeko talde bat ere eratu da.	Jakinarazpena zabaldu
2019/04/16	Formazio saioa: Nutrizioa	Herritarrei zabalduko zaien informazioa adostu eta jakinarazpena prestatu dugu.	Apirilaren 23an banatuko da




Hurrengo saioa: 2019/04/30	Batukada	Haritzizabalgo Enekorekin egon ondoren, instrumentuen garrantziaz ohartu gara eta herrian ez ditugunez, Legazpiko Udalari maileguan eskatuko zaizkio hiru hilabeterako. Eskaera prestatu dugu.	Legazpiko Udalera bidali
	Udal Hauteskundeak	Aurreko Herri Batzarrean adostutakoaren harira, maiatzaren 5ean izango da Itsason Udal ordezkariak hautatzeko eguna. Bozka paperak eta sobreak prestatu dira eta etxeetara bidali beharreko eskutitza ere prestatzen hasi gara.	Datorren astean banaketa egin

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/04/09) Hurrengo saioa: 2019/04/23	Auzolana	Auzolanaren azken antolaketarekin aritu gara: talde bakoitzeko arduradunetz gain, izena emandako partaideak taldeetan antolatu dira eta bakoitzak zein material eraman behar duen zerrendatu da. Dagoeneko 42 lagunek izena eman dute.	Larunbaterako guztia prestatu izan
	Korrika	Itsasori dagokion tramoia Irizarreko errotondan hasi eta Uribarko bidegurutzera bitartekoa da eta bi peto ditugu lekukoa eramango dutenentzat. Alegian, larunbatean, apirilaren 13an, 8:30etan elkartuko gara. Korrika 9:15k aldera igaroko da. Korrika egin ondoren, bertako produktuekin osatutako gosari eder baten bueltan jarraituko du ospakizunak, Alegiko Zelai-Ondo elkartean.	
	Goierriko irakurle taldearen III. topaketa	Beasain eta Zumarragaren ostean, Ordiziak hartu du erreleboa eta maiatzaren 25erako antolatu dute Goierriko Irakurleen III. topaketa. Aukeratutako liburua Patxi Zubizarretaren <i>Jeans-ak hozkailuan</i> da eta Ordiziako Zuhaitzi aretoan ospatuko da.	Jakinarazpena zabaldu
	Formazio saioa	<i>Giltzurrunak eta hezurak indartu eta osteoporosiari buruzko gomendioak</i> formazio saioaren data konfirmatu digute. Maiatzaren 2an egingo da Alegiako Zelai-Ondo elkartean, 18:00etatik 20:00etara. Helburua honako hau da: Hezurak nola ahultzen diren eta hori eragozteko modua zein den ikusi eta, era berean, hezurak ahalik eta indartsuen mantentzeko bizi-ohiturak eta elikagaiak zein diren ikasiko dugu. Dastaketa eta galderetarako tarte ere izango da.	Jakinarazpena zabaldu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/04/10) Hurrengo saioa: 2018/04/24)	Udaletxeko atari berria	Hiru ateen artean Udaletxekoa eta komuna identifikatzeko errotulazioa zeramikaz egiteko aukera planteatu da. Udaletxearen izenaren azpian ordutegia ere jartzea komenigarritzat jo da.	Pott-ekoekin landu
	Zabor-edukinontzi berriak	Apirilaren 23tik aurrera errefuxa edukinontzia bakarrik astelehenetan irekiko da txartela erabiliz. Txartel hori bera beharko da Alegiako Garbigunea ere irekitzeko. Kontenedore horiei herri guztietan aho txikia jarri diete Sasieta Mankumunitatekoek, behar diren hondakinak ez botatzeko. Konpostagailua lehen aldiz eskatu dutenentzat ikastaroa oraindik egiteko dago, bakoitzaren etxean. Belarra botatzeko aukera jarriko da Alegiako Garbigunearen ondoan	Etxe guztietan buzoneatuko da "Hondakinak biltzeko zerbitzua Itsason" dokumentua
	GOIENER	Egin duen behin betiko eskaintzak 1000 euroko aurrezkoa dakarkio udalari eta potentzia doituta 120 euro kontsumoan	Herritarrei euren proiektua zabaltzeko aukeraz galdetu
	Egituraren azterketa Udal eraikinean	Orain Teknaliakoak egiten ari diren azterketa honek ematen dituen emaitzen arabera, oraingo aurreproiektua proiektu zehatz bihurtuko da	
	Alegiako ur hodiak	Maiatzean Foru Aldundiak Alegiako Elizatik Altzibarkoen etxerainoko bidea (Apaiz etxera) altxatuko du, hor topatu baitute arazoetako bat.	Egunen batean errepidea moztuta izan dezakegu (Atsusaingo alternatiba erabili)
	Auzolaren balorazioa	Lan asko aurreratu da denon lanari esker: Alegia presa ingurua, erretena, lorategiak, Alegia-Itsaso zirkularra markatzen amaitu, Kizkitzakoari oraindik falta bazaizkio ere joango dira bukatzen, etxebizitza margotzeko lantaldea antolatu da...	Marka laranja eta urdin gehiago egin behar dira. Mahaiak eta eserlekuak Narraspek jarriko ditu



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)